



2008KO UZTAILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko uztailaren hogeita lauan, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du hausnarketa eta hainbat kontsulta egin ondoren, gerontologikigoko lursailaren gaia eguneko gai zerrendatik ateratzea proposatzen duela eta beraz bertan behera uztea.

Osoko Bilkura ontzat ematen du proposamena.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 18. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hemezortzigarren egiaztagiria luzatu du. Hemezortzigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO eta HAMASEI ZENTIMOtakoa (158.855,16 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hemezortzigarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 19. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hemeretzigarren egiaztagiria luzatu du. Hemere-



tzigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGETA HAMASEI MILA BDERATZIE-HUN ETA BAT EURO eta BERROGEITA HAMABOST ZENTIMOtakoa (136.901,55 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkarte ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea obra egiaztagiri hauetan garai haietan izandako euriteen ondorioz sortutako kalteek zer aurrekontu desbiderapen sortu duten edo bestalde epeetan atzerapenen bat sortuz eraginik izan duten.

Alkateak erantzuten dio esanez gai honen inguruko azalpenak hirigintza batzordean eman zirela baina berriro esango duela; gaineratzen du sotoan ura sartu zela eta ordu-rako zoruko tarima erabat bukatuta zegoela, eta alde horretatik eragin handia izan zuela baina oraindik obran ari direla izan denez, hori kontratistaren aseguruak hartzen duela bere gain; gaineratzen du baita ere, gertakizun honen ondorioz bonbataz sistema berri- si egin dela eta lehen aurrikusita zegoena hobetu beharra dagoela ondorioztatu dela. Az- kenik, esaten du, obrak amaitzeko epea lehen aurrikusita zegoen epean mantenduko dela, hau da inaugurazioa irailaren amaieraren egiteko moduan izateko.

Azalpen hauek eman ondoren, gaia bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, berta- ratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikun- tza lanen hemeretzigarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak apli- kagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposame- na irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honetako kopururik garrantzitsuena eraikin bat erosteko erabiliko dena dela, Enpaundi baserriaren gainkaldean dagoen eraikin bat, nekazal ustiaketarako erabilera duen eraikina eta Arau Subsidiarioen arabera ekipamendu komunita- rio erabilera baimentzen duena baita ere.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako guztien aldeko botuekin, hona- ko hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedienteak onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK



Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	543.766,12,- €
VII	Kapital transferentziak	82.075,00,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		625.841,12 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IX	Finantza pasiboak	625.841,12 €
GUZTIRA		625.841,12 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- ENPAUNDI GAIN ALDEAN DAGOEN ERAIKINAREN EROSKETA.-

Udalak azpiegitura eta zerbitzuetarako lehendik daukan eraikina erabat beteta dauka eta hori horrela eraikin berri baten beharra ikusten da. Orain eraikin bat eskuratze-ko aukera sortu da eta eraikin horren jabeekin izandako elkarrizketetan erosketa baldintzei buruzko adostasunera iritsi da.

Guzti hau horrela, eraikin honen erosketa planteatzen da. Eraikina, Enpaundi gain aldean dagoena da eta erosketa prezioa BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA (270.000,00 €) EURO da.

Gaiaren inguruan argibideak eman ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Honako finka hau erostea: "Lazkaon, Enparaundi baserriaren inguruetan kokatutako granja eraikina, Karmengo Gure Amaren Granja izena duena. Eraikina bost metro eta hirurogei zentimetroko altuera duen nabez osatutakoa da. Bederatziehun metro karratutako solairua okupatzen du eta atari, igarobide eta lasaigune gisa balio dion bere lurrez inguratuta dago. Guztira, finka bakar gisa, hiru mila eta hogeita bost metro karratu ditu eta bere mugak honako hauek dira: Ipar, Hego eta Ekialdetik Jesus Larrañagaren Etxe-Maitea fin-kara doan mirabetza bidearekin eta Mendebaldetik Andres Garin Zurutuzaren finkarekin." Erosketa prezioa BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA (270.000,00 €) EURO da.

2.- Alkatea ahalmentzea aurreko akordioa formalizatzeko egin beharreko egintzak bideratzeko eta izenpetu beharreko dokumentuak izenpetu ditzan.

VI.- LANPOSTUEN BALORAKETA.-

Udal honek, iaz egindako udal birrantolaketa azterketan langileekin hitzegin zen bezala, udal lanpostuen baloraketa egin du. Lanpostuen baloraketa hau Consultores de Gestión Pública, S.L. enpresaren aholkularitzarekin egin da, lanak aurrera eramateko bere espedientean aurkitzen den baloraketako eskuliburua erabili delarik eta emaitzak, bere espedientean aurkitzen direnak baita ere, pertsonal batzordeari eta langileei beraiei azaldu zaizkie.

Lanpostuen baloraketa honen emaitzak 2008ko abuztuaren 1eko ondorioak izango lituzkete, onartuko balitz behintzat.

Baita ere, esan behar da, onarpena emango balitzaio behintzat, irailaren 10a arteko epea izango luketela langileek baloraketa honi alegazioak egiteko.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentu hori beraiek ez dutela ikusteko aukerarik izan nahiz eta batzordean hala eskatu zuten eta prozesu honetan oso partaidetza gutxi eman zaiela eta guzti honengatik abstenitu egingo direla.

Alkateak Sernari erantzunez esaten dio beraiek ere ez dutela partaidetza askoz gehiago izan.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (PSE-EE, PP) lanpostuen baloraketa hau onartu egiten du.

VII.- UDALHITZ.-

Alkateak esaten du, gai honen inguruan, eta hasieran akordioa lortu zela uste izan bazen ere, EUDELeK Udalhitzzen aplikazioari buruz irailera arte itxoiteko eskatu duela, eta EUDELeK eskariari erantzunez, gaia mahai gainean uztea planteatzen dela, baina baita, langileei horrela agindu zitzaielako, aurtengo igoeraren kontura iazko KPI+1en pareko aurrerapena onartzea planteatzen da.

Saldaña zinegotziak (EB-B) oso ondo ikusten dutela ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuekin lortu den akordioa aplikatzen hastea eta honekin, PSOEK, berak agintzen duen beste udal batzuetan hau aplikatzearen aurka dagoelarik, ikus dezan beste herri batzuetan aplikatzen hasi direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek gai hau mahai gainean uztea eskatzera zihoazela, EUDELeK irailera arte aplikatu ez dadin eskatu duelako; gehitzen du beste batzuek ez badute hala egiten, udal hau kasu, beraiek jakingo dutela zergaitik ez duten egiten.

Alkateak eta ondoren Estensoro zinegotziak, pertsonaleko batzordeburu gisa, esaten diote Sernari behar bada ez duela ulertu lehen esan dena, planteatzen dena ez dela Udalhitzzen onarpena baizik eta konturako aurrerapen baten onarpena.



Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu, aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (PSE-EE, PP), 2008ko soldaten igoeraren aurrerapen gisa, 2007ko soldatei 2007ko KPI+1, hau da, %5,2ko igoera aplikatzea onartzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



